

SEGURAKO FRONTOIAN EGINGO DA, GOIZEAN SAILKAPENA ETA ARRATSALDEAN FINALA

27 bikote gaur lehian Euskal Herriko Dantza Solte Txapelketan

■ Aurten 27 bikote aurkeztu dira Euskal Herriko Dantza Solte Txapelketara. XXI. aldia du gaur Segurako frontoian egingo den lehiaketak. Gipuzkoarren nagusitasuna arintzeko aukera emango zaie Nafarroako eta Bizkaiko bikote banari arratsaldeko finalean egoteko.



Parrondo
anai-arrebak
izan ziren
iazko
garaileak.
JAVIER
GALLEGO

Erredakzioa / Donostia

GOIZEKO saioa 11:00etan hasiko da, eta arratsaldekoa, berriz, 18:00etan. Aurten iaz baino lau bikote gehiago aurkeztu dira eta 1995ean baino sei gehiago. Txapelketak izango duen nobedaderik handiena ondokoa da: bikote gipuzkoarren erabateko nagusitasuna arintzeko asmoz, Nafarroako eta Bizkaiko bikote banari aukera emango zaie arratsaldeko finalean egoteko. Datozen urteetan Arabatik eta Iparraldetik bikoterik aurkezten bada, haiek ere finalean parte hartzeko aukera izango dute. Herrialde ezberdinetako dantzen artean dauden aldeak hobeto azaltzeko asmotan egin da aldaketa.

Iazko irabazleak ere, Hernaniko (Gipuzkoa) Amaia eta Aitor Parrondo anai-arrebak, bertan izango dira. Aurten ere lan ona egiten ari dira; izan ere, Lezon eta Estibalitzen egin diren txapelketetan garaile suertatu dira anai-arrebok.

Dantzari bikoteek bi pieza dantzatu beharko dituzte: fandangoa txistuz eta arin-arina trikitiaz. Lehenengo aldiz txapelketan honetan parte hartuko duten hiru bikote aurkeztu dira: Oihanen Arruarte eta Iker Arrue donostiarrak, Maialen Ledesma eta Oroitz Garbizu (Errenteriakoa eta Pasaiaikoa) eta Idoia Madariaga eta Carlos de las Heras sestaoarrak. Nafarroatik bikote bakarrik hartuko du parte: Lesakako Estitxu Fernandez Maritxalar eta Gaizka Sarasola Iarababal.

Aurreko urteetan bezala aurten ere bikoterik gehienak gipuzkoarrak dira, 24 guztira. Herriei

dagokienez, berriz, donostiarrak eta hernaniarrak dira gehienak.

100.000 pezeta irabazleentzat • Segurako Udalak antolatzen du txapelketa eta ohiko saria emango die irabazleei, Nestor Bastretxeak eginiko eskultura. Dantzariak, beti egin ohi duten bezala, beren herriko udaletxean gorduko dute eskultura hurrengo urtera arte. Horretaz gain 100.000 pezetako (4.000 libera inguru) saria izango du bikote irabazleak. Partaide guztiek Euskal Herriko jantzi tradizionalak eraman beharko dituzte bai goizean eta bai arratsaldean. Jantzien dotorezia saritzeko Euskal Irrati Telebistak 30.000 pezetako

saria emango du. Beste bi sari berezi ere banatuko dira. Bata, Guillermo Areizaga sortzailearen omenezkoa, Segurako Udalak emango du eta lehenengo aldiz parte hartzen duen bikote onenak jasoko du. Bestea, Donostiako KTEK (Kultur eta Turismo Ekintzetxea) banatuko du bikoterik gazteenarentzako. Bestalde, hala nahi duten dantzariak desfile baten parte har dezakete beraien jantzi buruzko azalpenak ematen diren bitartean.

Azken urteotan bezala, aurten ere Segurara txapelketa ikustera joaten ez denak ordu batzuk beranduago ETBko lehenengo katean ikusi ahal izango du arra-

tsaldeko saioa osorik, gaueko 21:00etan, hain zuzen. Joxe Mari Otermin EITBko programazio buruak txapelketaren aurkezpenean adierazi zuenez ETB gustura dago txapelketa honetan egiten duen lanarekin, baina aurrerantzean zerbait berria egin nahi dute: «Hobetzeko modua, irudi apainagoak lortzeko modua aztertzen ari gara; aurten ez da posible izango, baina datorren urtetik aurrera zegoen berezia egin nahiko genuke».

Arratsaldeko saioa amaitu eta epaimahaiak emaitza deliberatzen duen bitartean Edu Muruamendiaren dantzariaren *Aukeran* koreografia izango da ikusgai Segurako frontoian.

Muruamendiaren koreografia ikusgai

EDU MURUAMENDIARAZ bergararrak prestatutako *Aukeran* koreografia ikusgai izango da gaur Segurako frontoian. Muruamendiaren ikuskizuna zortzi minutukoa da eta Tomas San Miguelen musikarekin egina dago. Euskal dantza tradizionalaren pausok erabili ditu ikuskizunaren oinarrian, eta horren gainean erromeria batean kokatu du ekintza, lau neska eta lau mutilen arteko maitasun istorioan. Berak dioen bezala «gaur eguneko *Wed Side Story* baten modukoa da». Pausok tradizionalak

izan arren, jantziak ez dira hala izango.

Iaz Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak koreografia sorkuntzarako eman zuen dirulaguntza jaso zuen aurreko eta dantza solteko txapelketa izanaraz. Aurkeztu zituzten 26 proiektuetatik bederatzik jaso zuten dirulaguntza eta horietako bat izan zen Edu Muruamendiarena. Apirilean egin zen Euskal Koreografo Berrien Erakusketa eta bertan erakutsi zituzten euren lehen koreografia lanak. Proiektu bakoitzak 200.000 pezetako dirulaguntza jaso zuen

(8.000 libera inguru). Bederatzi koreografo berrien lanak Gasteizen, Lasarten eta Bilbon aurkeztu zituzten. Ondoren Edu Muruamendiaren eta beste bi koreografok Irunen eskaini zuten beren emanaldia eta orain Edu Muruamendiarena suilik ikusi ahal izango da Seguran. «Jaurlaritzak hiru erakustaldi egiteko aukera eman zigun, baina horietatik aurrera bakoitzak gure bidea egin behar dugu», adierazi zuen Bergarakoak.

Jaurlaritzak emandako dirulaguntza egoki ikusten du Muruamen-

diaren. «Horrelako gauzarako laguntza ematea positiboa iruditzen zait. Pentsatzen dut laguntza gehiago eman beharko litzatekeela, baina behintzat hasiera bat da eta agian poliki-poliki gehiago joango da».

Koreografiak asmatzeko bideari jarraitzeko asmoa du Muruamendiaren, eta datorren urterako Jaurlaritzak emango dituen dirulaguntzetarako beste proiektu bat aurkeztu asmo du. *Aukeran* ikuskizunari buruz, oraingoz behintzat Segurakoa izango da azken emanaldia. X

Errenteria Dantzen-en VII. aldia abian da

■ *Atzo hasi eta ekainaren 28ra arte iraungo du*

Erredakzioa / Donostia

ATZO eguerdian hasi zen duela zazpi urtetik hona Errenterian (Gipuzkoa) antolatzen den dantzaren inguruko astea, Errenteria Dantzen. Ereintza Dantza Taldeak antolatuta atzotik hilaren 28ra arte izango dira Errenterian Dantzen-en inguruan prestatutako ekitaldiak. Atzo eguerditik datorren larunbatera arte euskal jantzien erakusketa izango da ikusgai udaletxe ondoko AEKren lokalean. Horretaz gain atzo arratsaldean Ereintza Dantza Eskolako haurrek beren kurtso bukatuko saioa egin zuten.

Bihar, 19:00etan, Ereintzako haurrek San Joan dantza egingo dituzte udaletxe ondoren, eta 20:00etan Iztietan eta Agustinak auzoan. 22:00etan Ereintza Dantza Taldeak, urteroko ohiturari jarraikiz, ohorezko aureskua eskainiko du Herriko Enparantzan.

Ostegunean Dantza Eskolako haurrek herriko kaleetan zehar desfilea eta dantza saioa egingo dute 19:30etan. Ostiralean Ereintza Dantza Taldeak aurtengo ekitaldia eskainiko du Udal Pilotalekuan 22:00etan. Larunbatean amaituko da aurtengo ekitaldia, Oñattitik eta Gernikatik joango diren bi dantza taldek 19:00etatik aurrera herriko kaleetan eskainiko dituzten dantza saioekin. X

Haur abesbatzen lehiaketaren aurkezpen kontzertua gaur Berastegin

Erredakzioa / Donostia

HAUR abesbatzen konposaketa lehiaketaren aurkezpen kontzertua egingo dute gaur, eguerdiko 12:30etan, Billabona, Ordizia, Berastegi eta Durangoko abesbatzek Berastegiko elizan. Gipuzkoako Abesbatzen Elkarteak antolatu du gaurko topaketa. Haur abesbatzen konposaketa lehiaketa Tolosan egingo da aurten, honako abesbatza hauen partaidetzarekin: Eresargi Txiki (Billabona), Antxieta Txiki (Azpeitia), Oroith Txiki (Ordizia), Besakaitz (Berastegi) eta Bartolome Ertzilla Musika Ikastegiko Abesbatza (Durango).

Aurtengo ekitaldiko obrek euskarazko hitzak dituzte. Gaurko kontzertuan Raymond Parfrey, Jose Luis Frantzesena, Jesus Eguiguren eta G. Patric-en obrak emango dituzte. Elkarrekin batera abesteko obra *Hargia* da; musika G. Patricen sortua da, eta hitzak A. Lasalderenak. X